


3.a

1.
JARDUERA
FITXA

BEHARRA



EZAGUTZAK :

Beharra

MAILA :

3 "badakit egiten"

GAITASUNAK :

- Beharraren deskribapena formalizatu zentzubitasunik gabe.



Gaur egun, energia-hornikuntza erregai fosilen errektuntzan oinarritzen da batik bat. Petroliotik ateratzen dugu autoetarako, autobusetarako eta hegazkinetarako erregaia. Gas naturala errez sortzen dugu elektrizitatea, etxean janaria prestatzeko, gaez argia izateko eta ordenagailua erabiltzeko. Eta gasa erretzen dugu iturria ireki eta ur beroa izateko.

Erregai fosil horiek ez dira agortezinak, ordea. Are gehiago, luze baino lehen izango dira "merke" ustiatu ahal izateko baino urriago; luze baino lehen, eskariak eskaintza gaindituko du. Eta gaur egun dagoeneko nazioarteko gatazken iturri badira, pentsa orduan.

Energiaren ekuazio konplexu horri ingurumena erantsi behar zaio, gainera. Izan ere, zantzu guztien arabera, erregai fosilak erreta klima-aldaketa eragiten ari gara. Atmosferara isurtzen ditugun gasek berotegi-efektua areagotzen dute, eta 100 urtean Lurraren batez besteko tenperatura 6 °C-raino igo daitekeela iragartzen dute aurreikuspenik okerrenek.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da erregai fosilak ordezkatu dituzten iturriak gehiago garatu eta erabiltzea.

www.zientzia.net/ web gunetik hartutako artikulua

- Zein izan daitezke energia iturri berriztagarri hauek ? Ezagutzen dituzunak hemen zerrenda itzazu :

Gure hautua hauxe izanen da : **haizearen energia** erabiliko dugu etxe batean behar den energia elektrikoaren parte bat ekoizteko, energia-iturri osagarri gisa erabiltzeko.

Baina nola deitzen dira halako sorgailuak eta nola eginak dira ? Eta zein da orduan bete nahi den beharra ?

Aerosorgailuak edo haize-errotak ezagutu

Ordenagailua piztu eta, nabigatzailea abiatu eta honen helbide barraren bidez bi webgune hauek ideki bi fitxatan :

<http://www.energiagipuzkoa.com/euskara.asp> (*Eolikoa* atala)

<http://www.eve.es/La-energia/Infografias.aspx> (*Energia eolikoa* infografia)

1- **Izendegia** izeneko dokumentuaren **Funtzioak** zutabea osatu.


2- Markak **Aerosorgailu baten osagaiak** izeneko dokumentuetan kokatu.

IZENDEGIA

10	Haize-orratza	
9	Anemometroa	
8	Sorgailua	
7	Biderkatzailea	
6	Ardatz nagusia	
5	Abatza	
4	Errotorea	
3	Dorrea	
2	Kaxa	
1	Palak edo besoak	
Marka	Izendapenak	Funtzioa



Aerosorgailuaren osagaiak



3- Bi iturriak (webguneak) erabiliz, ondoko galdera hauek erantzun :

a- Nola sortzen da energia eolikoa ?

b- Zertarako da errotorearen eta sorgailuaren arteko biderkatzailea ?

c- Zein dira aerosorgailu bat kokatzeko kontutan hartzen diren ezaugarriak ?
(lau ezaugarri eman)

d- Zenbatekoa da 2000 kWeko sorgailu baten errotorearen diametroa ?

e- Haize errotek dauzkaten 2 alde on eta 2 alde txar eman :

